

**A.9.2. ASUA ERREKA****A.9.2. ASUA ERREKA**Azalera: 57.559 m<sup>2</sup>**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Industria alorreko erabilpenak nagusi dira egungo trenbidearen eta Saihesbidearen artean kokaturik dagoen barruti honetan, trenbide horren beraren azpiegiturak bereizten duelarik hiri gunetik. Gaur egun lotura bakarra du trenbidearen azpitik hiriko egiturekin, zabalera eta garaiera eskaseko tunel estu baten bitartez.

Eremu honetarako ez da "Electrociclos" Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko xedea duen Planeamendu Gehituko Eremuaz aparteko proposamen berririk egiten; lehendik dauden eraikinak finkatu egiten dira.

**II. Hirigintza-Erregimen Orokorra**

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerrokadurak eta Sestrak, Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Erabilera produktiboa da: Hirigintza Arauen aginiko 8.3.09. Artikulua.- Erabilera produktiboa (8. erabilera).

**III. Ordenazio Xehatua**

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.

Planeamendu Gehituko Eremu bat sartzen da eremu honetan, eta horri dagokion ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da

API 13 ARANE-ASUA ERREKA, Electrocicloseko Eremua 43. BJUaren XEHETASUNEZKO AZTERLANA

Azalera: 5.801 m<sup>2</sup>

Planeamendua:

\* Unitate etena hirilurrean, Arau Ordezkatzaileen aldaketa puntual baten bidez sortua, 2001eko uztailaren 3ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren erabakiz behin betiko onespena jaso eta 2001eko uztailaren 16ko GAOan argitaratu eman zena, 136. zenbakiko alean hain zuzen ere.